



Europeana liburutegi digital erraldoiaren erabilera hobetzen lagundu du EHUko IXA Taldeak

UPV/EHUko IXA Taldeak Europeana liburutegi digital erraldoiaren erabilera hobetzen lagundu du. Liburutegiak kultura-arloko 15 milioi ale biltzen ditu, gaur egun, askotariko formatutan (irudiak, testuak, audioak eta bideoak). IXA Taldeak eduki horiek aberastu egin ditu hizkuntza-teknologiaren bitartez, erabiltzaileen bilaketak errazteko eta bilaketari buruzko informazio osatuagoa emateko. Europako PATHS (Personal Access To cultural Heritage Spaces) proiektuaren barruan egin du lan hori. Datorren ikasturtean UPV/EHUn eskainiko den Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterrean izango dira aztergai teknologia horiek, besteak beste.

Interneteko edozein bilaketatan, informazio egokia aukeratzeko, ezinbestekoa da hizkuntzaren tratamendu automatikoa. UPV/EHUko IXA Taldeak Europeana liburutegi digital erraldoian dauden edukiak aztertu eta osatu ditu hizkuntza-teknologiaren bidez, PATHS proiektu europarraren barnean.

Liburuak, filmak, pinturak, egunkariak, soinu-artxiiboak, mapak, eskuizkribuak eta bestelako artxiiboak daude liburutegi horretan. Gaur egun, 15 milioi ale digital biltzen ditu, askotariko formatutan: irudiak, testuak, audioak eta bideoak. Kopuru erraldoi horiek nahasgarriak izan daitezke zenbaitetan erabiltzailearentzat, zailtasunak izan baititzake aurkitutako informazio guztia interpretatzeko. Horrenbestez, liburutegi horretan kultura-lanak bisitatzeko ibilbide gidatuak eskaintzen ditu, besteak beste, PATHS proiektuak.

"Ibilbide gidatu horietako item (eduki) kultural batzuek, ordea, deskribapen laburra edota informazio gutxi izan ohi dute", azaldu du Eneko Agirre IXA Taldeko informatikariak, "eta erabiltzailea gehiago jakiteko gogoz geratzen da zenbaitetan". IXA taldeak eduki kultural horiek aberastu ditu hizkuntza-teknologiaren bitartez. Alegia, item horietan interesgarri izan daitezkeen antzeko edukiak proposatzen zaizkio erabiltzaileari; antzeko itemen zerrenda bat ematen zaio gaika antolatu eta ordenatuta; kanpoko baliabideetarako, esaterako, Wikipediarako loturak gehitzen dira; eta, gainera, aurkitutako informazioa erraz interpretatzeko laguntza ematen zaio erabiltzaileari.

Hainbat teknika erabili dituzte IXA taldeko ikertzaileek: ikasketa automatikoa, analisi linguistikoa —morfologikoa eta sintaktikoa—, testu-corpusak, terminologia-erazketa, testuaren ulermena eta desanbiguazioa... Teknika horiek guztiak landuko dira, hain zuzen ere, 2013-2014 ikasturtean UPV/EHUn IXA Taldeak emango duen Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua unibertsitate-masterrean.

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra (HAP)

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua unibertsitate-masterraren helburua da hizkuntza aztertzea eta hori ordenagailu bidez tratatzeko dauden teknikak eta aplikazioak ezagutzea. Master hau UPV/EHUko IXA Taldeak antolatu du.

Hizkuntzalaritza eta informatika uztartu nahi dituzten guztiei zuzenduta dago masterra: filologo eta hizkuntzalariak, informatikako eta telekomunikazioetako ingeniariak, matematikariak, itzultzaileak... Unibertsitateko graduatua izatea nahikoa da, interesa edo esperientzia edukiz gero.

Masterrak ikasturte bateko iraupena du, eta ikasketak UPV/EHUko Informatika Fakultatean eskainiko dira. Bi edo hiru ikasturtetan ere egin ahal izango da, lanean dabiltzan profesionalek ere aukera izan dezaten.

Aurrematrikula egiteko epea irekita dago jadanik, eta ekainaren 7ra arte dago izena emateko aukera. Masterrari buruzko informazio gehiago <http://ixa.si.ehu.es/master/> webgunean aurkitu daiteke.